

Justina Lezeta Unzueta

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1929-2020)*

Aurkibidea

Biografia



Iralatorre baserrira bizitzera joan zen ezkondu ondoren.

Zintak

ANT-065

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-11-30
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ANT-066

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-11-30
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Irimo auzoa

- **Erref:** ANT-065/001
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Iralatorre baserrian jaioa (Irimo auzoa). Irimoegi auzoaren banaketa. Auzoaren inguruko azalpenak; azken urteetan eman diren aldaketak. Baserri izenak.

Transkripzioa

-Kontaukostazu noiz jaiotakoa zaran eta zein basarritan jaio ziñan?

-Basarri honetan bertan?

-Bai.

-Ze izen dauka honek?

-Iralatorre.

-Irimo auzuan?

-Irim auzua. Irimo Alto da hau. Gero hori, kamiñotik haruzkua "Bajo". Hor frentera dagon hori.

-Orduan auzuan bertan bi zona edo...

-Bai. Bi barrixo. Hau Alto eta bestekaldia Bajo.

-Eta gitxi gorabehera basarri kopuru berdiña?

-Ez, hemen gehixao. Han oiñ gutxi. Han lau basarri batera-batera Arrandain, baiña harek bajau zian behera eta.

Justina: batera juten die, horrek egunero juango die, haura sostenitzen dabe basarrixa. Egunero eingo dabe bueltia, baiña bizi-bizi han ez.

-Hemen Irimo Alto honetan basarri gehixao dare?

-Han handikaldian baiño bai.

-Eta hemenguak gutxi gorabehera mantendu eitten dia, bertan bizi da jentia? Edo asko galduta dare?

-Asko ez. Bat. Goikoetxe eta...

Justina: Goikoetxe haura bota zan. Iribarren egongo die beste bi bizitza lehenguak, baiña baten ba txakurra dauke eta egunero joaten dia. Bestia Bitorixan bizi da eta harek erretillia ein zotsan, baiña... Haura eta Irala.

-Gaiñekaldekua hutsik dao.

Justina: Gaiñekaldeko etxia; eztakitt hor pasau zan sekula gora. Teillatu sailla jausitta eta zertuta dao. Hori eta haura dia jabe batenak. Erak Bitorixan bizi dia eta.

-Orduan batzuk badare bizitzen...

-Bizi izeten? Bai.

-Hor dare albuan lau illaran, eta gero beste hiru illaran. Eta Sasketa eta Iribar. Eta gero hau bi bizitzakua da, eta gero beste bat [Aitza] bi bizitzakua. Hori beheko hori be agroturismua.

-Ibarre?

-Ibarre.

-Eta horrek zer die, bi bizitza?

-Ez, bakarra.

2. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** ANT-065/002
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Auzoan eman diren aldaketak. Lehenago lur-sail gehienak landu egiten ziren; egun, oso baserri gutxitan ereiten da ezer soroetan. Antzuolan larru-lantegiak egon ziren gerra aurretik eta baserritar asko bertara hasi ziren lanera joaten. Telleria, Olaran, etab. Gerra garaian "guarnizioneria" jarri zuen Telleriak. Antonio, bidezain bezala hasi zen lanean 35 urte ingururekin. Baserrietako bizimodua erabat aldatu da.</p>

Transkripzioa

- Zuk zer esango ziñuke. Auzua zu jaixo ziñanetik hona asko aldatu da? Ingurua?

- Bai. Lehen dana labrau eitten zan. Eta oin gehixena, danak... labrantzaik ez dao. Hola puxketan bat, patatia edo geuk be badaukau eta, eukitzen dou, baiña bestela ez da ezer hartzen. Jendia lanera.

- Gutxi gorabehera ze urtetan hasi zan jentia kalera jaisten lanera?

- Bueno. Gerria hasi zanian. Hemen lau fabrika zeren. Kurtiderixak lehen.

- Zeintzuk?

- Justina: bata zera, Telleria, Olaran eta...

- Narrua zertzen. Orduan be jendia bazebillen, baiña gero gerria hasi zanian Tellerianian zera euki zebeñ, guarnizinerixia. Eta orduan gazte asko lanera joan zan orduan.

- Baserrixetatik?

- Bai, bai. Gu geratu giñen, baiña... Hementxe, basarrixan zeeze in bihar zala ta! Baiña...

- Baiña beste asko hasi zien lanera herrira jaisten?
 - Bai, bai.
 - Zeu zenbat urtekin hasi ziñan ba kamiñero?
 - Ni hogeta hamabostekin. Bixenbittartian hementxe ibilli ta.
 - Zeuen aurrekuak baiña basarrittik bizi zien, ez?
 - Bai. Aitta difuntua gerratian ibilli zan kalia. Lana zeuan orduan kurtiderixetan eta haura lanian ibili zan.
 - Aspaldi hasi zian basarritarrak kaleko lana eta basarriko lana...
 - Bai. Eta oin berriz basarrittik danak kalia dabitx.
 - Justina: Ze basarrixan bakarrik ez dao.
 - Ez, ez. Gure edadetik beherakuak, eta gure edadekuak jubilauta, baiña bestela gazte-jendia dana tailleretan dao. Lan asko dao hemen.
 - Hemen fabrika pilla bat.
 - Bai. [...] eta bertan ba bi milla lagun egongo dia? Lehen ba bajauta be egon da, baiña oin ixota dao.
 - Basarritik bizimodua ataratzeko oin gaizki?
 - Bai. Basarrittik ganauakin be ezin leike. Hortxe zeoze eukitzen dou geuk 'e. Baiña jendiak jornaletik.
 - Justina: Okela-txahalak oin dala hamabi urte asko ez zeuan, gutxi igual. Prezio berdiñian dao... Etara eizu kontuak ostian zela joan dan [...]. Pentsuak eta nora jun dian.
 - Basarrittik ezin leike bizi. Batzuk badae. Antzuelan ez. Baiña hola basarri..., ganau asko eta ardixa-ta Altzetan be... Baiña Altzetan be lanian dabitx. Aitta jubilauta eta harek hantxe ibiltzen dia, baiña... Guretan ez. Guretan etxe ingurua garbi eukitzeko, zelai-puxketa batzuk badare eta haretzek garbi eukitzeko ba bi behi eukitzen dittugu. Eta beste bi txahal hazten baittue ba...

3. Baserriko bizimodua guztiz aldatu da azkenengo urteota

- **Erref:** ANT-065/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua zeharo aldatu da. Lehenago artoa eta garia ereiten ziren batez ere. Patata gutxi, gaurko aldean. Ganajatekoa ere ereiten zen. Belar-ondoa.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu ingurua asko aldatu dala. Lehen dana labrantzia zala.
 -Hoixe, danak lanera joanda eta, beste bizimodu bat.
 -Lehen ze labratzen zan?
 -Dana. Artua eta garixa. Orduan hainbeste patata ez zan ipintzen. Oin patata gehixao ipintzen da. Lehen sasoe baten, gu gaztiak giñanian, patatia gutxi ipintzen zan. Baiña artua eta garixa.
 Justina: Eta erromalaxia ganauandako.
 -Ganaundako zeoze ereitten zan, arbixa edo?
 -Arbixa be bai.
 Justina: erromalaxia botatzen zan edo arbixa be bai negurako. Oin be bai.

-Garixa kentzen zanian, gero arbixa ereitten zan agostuan. Eta negua ba harekin pasatzen zebeu ganauak. Ba bedarra, bedarrondua, sekaturako bedarra etxian zelaibatetik sekutzen zan bedarrakin. Oin be bai. Guk asko ez dou eitten, baiña hor ibiltzen ga zeozetan.

Justina: Seme-alabak laguntzen dabe eta, enfardadora eta tratora eta katxarruak ipiñita dauzke, eta bueno. Etxeko zelaixen zera garbittu ein bihar. Bestela sasixak hartzen dittu. Bedarra be lagatzen bozu, haura be erre edo zeoze ein bihar dozu /bihozu/. Orduan ba udan bedarrondo puxkat batu negurako, eta udaberrixan ba ointxe sartu dittugu ganauak.

-Bai, uda guztia kanpuan pasatzen dabe ganauak. Aprillian jarain eta ointxe hillabete inguru edo [etxeratu]. Bestela kanpuan.

4. Basoa; garo-batzea

- **Erref:** ANT-065/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Basoak nolakoak ziren; baserritik nahiko urrun zeuden. Garo-batzea udazkenean egiten zen.

Transkripzioa

-Esan dozu zelaixak...

-Lehen labrautakuak oin zelai dare.

-Eta hemen inguruan basorik eta eukitzen zenduen?

-Harutzao dare [Kiruak]. Bestela basuak urrin hemendik. Garua-eta ekartzen zan orduan, baiña urriñetik.

-Hemen orduan basorik-eta ez zeuan.

-Ez ez zeuan. Zelai. Harrezkero sartu dia zelai saillak piñu, zegatik eze [basarritik ez zeuan jarririk eta].

-Basuak orduan urrin?

Justina: [...]

-Altzetatik... Alderdi hontara, baiña urrin. Antzuelako terrenuak dia ba gaiñeraiño, mendi gaiñeraiño. Asko dauzke hor basuak alderdi hortan, geuk be puxketa bat han daukau.

-Urriñera joan bihar izaten ziñuen garotara...

-Bueno, haura basua zan. Garua geunkan hemen, e, alderdi hortatik be bai eta hemen Irimo aldetik. Bai, orduan lelengo ebaitzera eta, gero ekartzera eta, irixekin hementxe ibiltzen giñan. Urrin jua bihar eta, negurako ganauendako garua ekarri bihar. Oin garorik ez dau ekartzen, baiña hor jiratzen dia, bedarrondotara edo, aska hondarretatik garbittu eta. Orduan uda atzenian garo pillia ekartzen zan.

5. Baserriaren historia

- **Erref:** ANT-065/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren historia. Garai batean dorrea izandakoa. Harlanduzko hormak; armarrria. Antzuolako medikuaren etxea izan omen zen garai batean.

Transkripzioa

-Zu basarrixan jaixotakua zara, gitxi gorabehera badakizu honen istorixia edo? Zure familixakuak beti egon dia hemen?

-Bai. Baiña hau torria zan. Arlandua-eta, Iralatorre, baiña izeten dia ba kastilluan moduan etxe haundixak. Eta hau bota ein zeбен. Gure ama difuntia ezkondu aurreko urtian. Hemen zeren arlanduak, dibujuak dauzkenak horrek haundi horrek izeten die ba, harrixak. Oinddio badare hor bistan, ipinitta. Bai. Horrek zian, fatxadia zeuan bestekaldetik. Orduan [...] alde batetik bestera. Nik ez dakit, baiña lehengo fotografixia hortxe dao. Eta hau zan Antzuelako medikuan eta basarrixa. Gero obria ein zeбен.

Justina: Hau lehen zan fatxadia.

-Jesus, ze ederra!

-Dana arlandua. Alderdi hortatik zeuan, baiña.

Justina: hemengo eskudua Bilbora eruan zeбен. Hau medikuan etxia zan, eta medikuak hau saltzera orduko zerera eruan zeban, Bilbora.

-Hau etxia... Urretxun be badao, lpiññarritta, ez dakit dakizun nun daren Irimo onduan?

-Ez. Ederra, e. Eta eskudua be dotoria.

-Baiña horrek danak eruan zittuen, e!

Justina: Hemen, klaro, liburua be etarata lñigo; Ramirez, ezautuko dozue.

-Bai.

-Hori. Hori jun da fotografixak etarata ikustera. Eta ez zotsen laga pasatzen. Ez zotsen permisoik emon pasatzen haura ikusteko. Beste egun baten joan zienian joan zien eskillariakin, ixo zeбен nolabait, eta oinddio egunen baten horrek etarako dau haura, haura fotografixia etara zebana.

-[...] zeukan dana fatxadia. Gero etorri zien eta ez dakigu, bota ein zittuen.

-Esan dozu bota zebela zeure ama ezkondu aurreko urtian. Gutxi gorabehera ze urte?

-Ba larogeta bat, larogeta bi. Larogeta bi-hiru. Larogeta bat dauzkat oin. Larogeta bi-hiru obria ein zala.

-"Veinte" inguruan?

-Etxia ein zan hurrengo urtian ezkondu zan gure ama. Eta gero gu izan giñen. Pentsa eizu hortik. Gu beintikuatruan jaixuak ba... Beintidosian edo, ezkonduko zan edo.

6. Baserriaren historia; gurasoen jatorria

- **Erref:** ANT-065/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren historia. Antzuolako medikuaren etxea izan omen zen garai batean. Amandrea, Legazpitik etorritakoak, Mirandaolatik. Aita, Antzuolakoa.

Transkripzioa

-Orduan Antzuelako medikuan basarria zan hau?

-Medikua eta gero Elgoibarren zeukan arrebak eta. Izetez medikua Elgoibarkua zan, gero hemen bizi zan, urtetan mediku zeuan.
[...]

-Basarria bota eta hau egin zan, bi etxebizitzakua.

-Bai. Lehen be bikua zan. Baiña pasuak eta danak..., sasoen baten bat izendakua. Izengo zien nagusin batzuk edo, ez dakigu ze jentuza izengo zan holako torriak eta eitteko.

-Eta zure gurasuak beti hemen ezkondu eta hemen bizi izan zien?

-Bai. Gure aman da..., amandria zan Legazpittik etorritakua, Mirandaolatik. Guk aurreko fotografiaik ez daukau, haura bai, harek badae.

-Eta aitta Antzuolakua?

Justina: Bai. Iñurrigarrokoa. Nere auzokua.

-Basalde. Han San Blastik aurrera, gorao. Ama hemengua.

7. Baserrien errenta noiz eta nola ordaintzen zen

- **Erref:** ANT-065/008
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Garai batean baserritar gehienak erretereroak ziren; etxe-jabeak. Errenta, garitan ordaintzen zen. Gabonetan, kapoiak; uda aldean, oilaskoak eta oilandak. Santo Tomas eguna, errenta ordaintzeko eguna. Gariaren balioa, dirutan eramaten zitzaion etxe-jabeari.</p>

Transkripzioa

-Orduan historixia daka basarri honek.

-Guk ez dou euki. Hogeta bost urte neuzkala erosi; saltzeko ipiñi zebe eta erosi giñuan etxia.

-Orduan sasoi batian zer izeten zien?

-Erreteruak. Gu be erreteruak giñen.

-Hemen pare bat jabe edo baserri asko zeuzkenak?

-Batzuk bai, batzuk lau-bost basarri edo gehixao zeuzkenak. Eta gure mediku horrek hemen zeuzkan lau, Antzuelan, eta Bergan beste bat. Gero danak saldu zittuan. Oin baiño merkiao zeren eta tira, eskerrak hari. Dirurik ez zeuan orduan e, [...] guk hogeta bost urte geunzkanian diruik ez zeuan. Basuan ibiltzen giñan eta hortxe. Eta jornala.

-Eta orduan errentia zela pagatzen zan?

-Garittan. Hogeta hiru anea garin balixua.

-Eta anegiak zenbat kilo dakaz?

-"Cuarentaidós y medio o tres", anegiak. Eta haura pagatzen zan garixak ze diru eitten zeban. Orduan diru bat izeten zan gerratian, garixa kendu be eitten zebe eta tasa bat zeukan garixak. Eta tasa haura pagatzen zan. Nola esango dotsut ba? Garixak Gipuzkua edo danak edo, prezio bat

zeukan garixak. Ez batak hamar pezeta eta bestiak bost eta hola ez. Prezio bat. Ze eitten zeban, ba haretxen gorabeheran pagatzen zan errentia.

-Justina: eta gero kapoi paria edo ze zan ba?

-Bueno, gero kapoiak pare bat Gabonetan eta udan oillaskuak hiru tandatan eta agostuan oillandak nausixari eruaten jakon.

Justina: lau tandatan.

-Hiru tandatan, oillaskuak, oillandak eta kapoiak. [...] Bueno, baiña bestiak ez zien errenta. Harek zian, e... lelungan eruaten hasi igual eta gero ba obligaziñua bezela.

-Garixa-ta ze pagatzen jakon, agostu aldian edo?

-Gabonetan. Santo Tomasetan errentia pagatzen zan. "El día veintidós de diciembre" errentia pagatzeko eguna.

-Orduan zer eruaten zontsen, hogeta bi anegak ala horren dirua?

-Dirua, dirua. Bere preziaua, garixa zeuan ba, ez zan egongo puntarengua. Gobiernuak ipinittako preziaua.

-Hori gerra sasoian?

-Bai ba.

-Eta aurretik garixa ez jakon eruaten?

-Garixa ez. Beti dirua. Gose-urtia edo zanian eskatzen zittuan. Berrehun kilo edo, errotara eruaten ei otsen, baiña errentan deskittatzen zan haura. Errendako ogixa, Errotaberrin panaderixia zeuan, iriña eta eitten zittuen, eta hara eruaten giñutzen, eta gero handik ogixa jasoko zebeñ erak. Tratun bat eukiko zebeñ eta.

-Baiña zure aittan sasoian garixa eruatia ez zan? Beti dirua?

-Gure akorduan ez beñepein ez da eruan garirik.

-Jakin garixa zenbatian dauan eta horren arabera...

-Bai, gobiernuak ipintzen zeban prezian pagatzen zan garixa.

8. Gabonetan kapoiak etxe-jabeari

- **Erref:** ANT-065/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxe-jabeari kapoiak ere eramaten zitzaizkion Gabonetan. Nola kapatzen ziren.

Transkripzioa

-Esan dozue kapoiak...

-Kapoiak Gabonetan. Kapoe pare bat.

-Kapoiak zeuek hazittakuak edo?

-Bai, etxian hazittakuak.

Justina: Hazten ez bazien gaitzerdi, erosi ein biher entregatzeko.

-Zelan hazten zien kapoiak? Zeoze espeziala ein biha jakon?

-Jan espezialik ez. Kapau eitten zien. Gurian amandria zan, koziñeria zan, baiña oillaskuak kapatzen be oso ona zan.

-Sekreturen bat zeukan horrek?

-Sekretua ez zan. Ohittutakuak eitten zebeñ hori, danak ez zebeñ eitten. Zegatik e atzia ipurdiko zer hortan ebai eitten zotsen. Eta gero hortik bihetza sartu eta arrautzak kentzen zotsen. Kapatzia hoixe da. Bestela oillaskuak pixkat bi hillabete ezkerro kukurrukuka eta oillo ondoren hasten

dia, eta kapatzia hori da. Eta gero kukurra haundixa bazeukan be denporiakin gastau eitten jakuen, horittu eta gastau. Eta gero kapoiak hazten zian ba hasarriak.

-Nik entzunda daukat illunetan edo hasi bihar ziela.

Justina: ez. Batzuk esaten dabe zaperua eta sartu eitten jauela.

-Bai, batzuk premixotan ibiltzen dien haundi horrek, derriorrian jota zaperua-ta sartu eitten [dotse], eta gero holakotxiak, premixotan eta ibiltzen dienak. Oin ez dakit. Oin be banaka batzuk ikusten dia, Santa Lutziatan eta saltzen dia.

-Baiña bestela zuek [...]

-Kapoiei emuten jakuen artua edo... Aparte eukitzen giñutzen oilluengandik behin zer batera ezker, baiña...

-Baiña jatekua beti berdiña zan..

-Artua eta garixa edo.

-Derrior sartzen...

Justina: Hori egingo dabe tratantiak eta. Hortaraxe plazara dedikatzen dianak eta. Honbre! Eingo dittue.

-Bai, baiña guk ez. Pare bat eruan bihar izeten zien, baiña lau bat hazten giñutzen. Akabau igual eitten zien baten bat edo; hemen ganauekin edo dabillenian edo hemen ibiltzen zien, eta baezpada be. Eta beste bi harek orduan, onak baldin bazeran Santa Lutziara eruan eta saldu. Etxian ez giñuan kapoirik jaten, dirua bihe zan eta.

9. Errentaren ordainketa zerekin egiten zen

- **Erref:** ANT-065/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Kapoiei "zaperua" ematen zitzaien jateko. Errentaren ordainketa: garia, kapoia, oilasko eta oilandak; etab.

Transkripzioa

-Esaten dozuenian zaperua sartzen jakuela, zaperua zer da?

-Artua xehetuta. Artaliakin iriña eitten da, eta gero haura uretan zertu, masa bat eiñ eta haura sartu.

-Eta hori derrigorrian sartzen jakue?

Justina: Esan eitten zebe, sartuko zotsen igual.

10. Amandrea neskame Toledon; itzulitakoan, sukaldari lanetan

- **Erref:** ANT-065/013
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Amandrea neskame egon zen Toledon bere ahizparekin batera. Bertan sukaldaritza ikasi zuen. Antzuolara itzuli zenean, batera eta bestera ibiltzen zen lanean (Hotel Urolan, esaterako). Garai batean neska eta mutil asko neskame edo morroi joaten ziren. Ezteiak baserrietan ospatzen ziren antzina, eta amandrea laguntzera joaten zen.

Transkripzioa

-Lehen esan dozu amandria koziñeria zala?

-Bai.

-Kanpuan egon zan ikasten edo? Edo lanian?

-Horrek kriada egon zien bi aizta, Toledon eta hor egon zien. Bi aizta. Eta gero gure amandria hona ezkondu zan. Eta bestia Elgoibarrera, Sorotara. Entzunda badaukazu Sorota? Azkarate gainddik, holaxe Zabaleta eta badare han, eta haraxe bidian. Han ezkondu. Sardandeixa zebeñ harek. Eta gure amandria berriz beti koziñera ibiltzen zan, Hotel Urola jenerala. Orduan ba parientiak zien, Zumarran, eta harek basarrixan lanik ez zeban egin.

Justina: Estaziño aurrian zeuan hotela.

-Bodetarako koziñak eta. Bi emakume. Hortxe zerian dagona, horixe da. Balkoian dagon horixe.

(...)

-Eta zela juañ zien ba Toledora?

-Orduan hori hola izengo zan. Kanpora jende asko juten zan orduan.

Justina: Hamabi anai-arreba giñan, eta gerraostian zeuan gosiakin nora... Geu be kriada egondakuak ga, e.

-A bai, e?

-Honbre!

-Eta nun?

Justina: Hementxe auzuan eta. Donostian'e egon nintzan azkenengo zerian eta. Eta familixan beste faltan zan tokin baten. Gure aitzia ez dakit zenbat urtian egongo zan [...] basarritan. Eta gero haura ez dakit, eskolara edo, hurrengo neu egon nintzan eta. Amillletan'e bai eta. Eta gero anaiak'e holaxe, basarri-etxetan eta.

-Etxe inguruan. Mutil gaztiak ba, zeoze egiñaz, ganauak zainttu edo zeoze.

-Orduan familixa haundixak izeten zien baserrixetan, mutillak morroi eta neskak kriada.

-Bai. Geurian be bi anae egon zien segidan. Eskolara juañ, e. Hori txikittan. Behin sei-zazpi edo zortzi urte ezkerre zeoze kobrauko zebeñ amak eta aittak edo; soldatia edo, lehenao soldatia izeten zan. Baiña eskolara bialduta, jaten emoten eta, asko ezingo zebeñ pagau basarritarrak e.

-Toledora juañia urrin ez?

Justina: Bueno...

-Ezaunik edo ez zebeñ eukiko.

(...)

-Orduan jente asko juten zan, e! Oin kanpora kriada ez da juten, baiña orduan danak kriada juten zien, ez zeuan lanik eta.

-Toledo urrin dago baiña.

-Bueno, baiña... Harek erderaz, e. Gure ama difuntiak erderaz zekixen e...
 Justina: Kastillano mordua etorri, Santanderguak, badakizu zelako kastillano mordua sartu zan hor. Haura ortuan eta, hari berbia emoteko bildurrez. Eta emoten jaue baten batek berba eta harek erak baiño hobeto jakin erderaz.
 -A bai, e?
 Justina: ez, zera.
 -Zenbat denpora egon zan Toledon?
 -Ez dakit hoixe. Urtiak pasauko zittuen, harik eta ixa ezkontzera zertu arte.
 -Orduan hona bueltau eta orduan hasi zan Hotel Urolan lanian?
 -Parietia zian. Bai. Hango kozinia asko ingo zeban. [...]. Esaten dabe gurian harek ganaurik ez zabela ez soltau eta ez lotu ein; basarrixan. Zegatik bestela... Kozinerak orduan be jornala etara ingo zeben eta kobrau ingo zeben. Eta hemengo bodetan'e bai, e. Hemen bertako bodak eitten zienian, basarrixan eitten zien bodak, etxian, eta han beheko sutan, e! Badakizu beheko sua ze dan? Lehen tximinixia hemen zeuan eta egurrekin eta. Han be bodetako kazuelak-eta kabidu biheko zien nonbaitt edo.
 -Eta kozinerak ekartzen basarritara ezteixetarako?
 -Bai, kozinerak ekartzen zien.

11. Familiako argazkiak

- **Erref:** ANT-065/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Familiako argazkiak ikusten.

12. Ezteiak baserrietan ospatzen ziren

- **Erref:** ANT-065/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Garai batean ezteiak baserrietan ospatzen ziren. Amandrea laguntzera joaten zen sarritan. "Oillo-ezteixa".</p>

13. Ezteiak; erromeria

- **Erref:** ANT-065/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ezteiak baserrietan ospatzen ziren. Erromeria ere egoten zen.

14. Beheko sua, labea

- **Erref:** ANT-065/018
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko beheko sua nolakoa zen. Ogia egiteko labea. Sukaldearen inguruko azalpenak.

15. Tximinia

- **Erref:** ANT-065/019
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Tximinia nolakoa zen. Kobrezko galdarak.

16. Jatekoaren inguruko aipamenak

- **Erref:** ANT-065/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jatekoaren inguruko azalpenak.

17. Sukaldea noalakoa zen

- **Erref:** ANT-065/023
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sukaldearen inguruko azalpenak. Kobrezko galdarak.

18. Ijitoak eskean baserrietara

- **Erref:** ANT-065/026
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

<p>Antzina, ijitoak eskean. Gurdi eta zaldiekin ibiltzen ziren orduan. San Blas ermita.</p>

19. Saltzaileak baserriz baserri

- **Erref:** ANT-065/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Saltzaileak; baserriz baserri oihalak saltzen ibiltzen zirenak... "Paragueruak".</p>

20. Zorroztaileak baserrietara

- **Erref:** ANT-065/030
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Zorroztaileak baserriz baserri.</p>

21. Antiguako ermita

- **Erref:** ANT-065/031
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:01:35. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Antiguako ermita. Ermandadea.</p>

22. Abere ermandadearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-066/001
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Ermandadearen inguruko azalpenak. Hiru hilabetero "komisiñauak" abereak ikuskatzera joaten ziren. Abere bakoitzari bere prezioa jartzen zioten. Ganaduren bat galduz gero, haragia baserritarren artean banatzen zen. Ermandadearen beherakada noiz eta zergatik gertatu zen. Aingeru guardako eguna, martxoaren 1a.</p>

23. Antiguako ermita auzoko baserritarrek zaintzen dute

- **Erref:** ANT-066/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Antiguako ermita zaintzearen ardura txandaka izaten dute; urtero bi lagun izaten dira hango gorabeherak kudeatzen dituztenak.</p>

24. Auzo bakoitzean ermandade bat

- **Erref:** ANT-066/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ermandadeak Antzuolan. 5 ermandade inguru egon ziren garai batean, auzo bakoitzean bat. Baserritarrak kanpoan lanean hasi zirenean, abereak kentzen hasi ziren eta ermandadearen beherakada hasi zen.

25. Suteen aurkako aseguraa; elkartasun handia

- **Erref:** ANT-066/004
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Suteen aurkako aseguraa. Errenteroak zirenak beste baserri batera joan behar izaten ziren, berria egin artean. Elkartasun handia egoten zen. Etxe-erre batzea. Antzuola-Bergara-Elgetaren arteko elkarlan berezia.

26. Argindarra; lasto azaoekin mezara; udal arduradunak elizan

- **Erref:** ANT-066/005
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Argindarra etxean betidanik ezagutu du. Goizean goiz mezara joateko, lasto azaoekin joaten ziren. Baserri izenak. Goizeko 6:00etan izaten zen lehenengo meza. Meza nagusia, 10:00etan. Udal arduradunak lehenengo ilaran jartzen ziren. Alkatea makilarekin joaten zen mezara.</p>

27. Pilotarako eta boletan egiteko zaletasuna; bolatokiak

- **Erref:** ANT-066/006
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Mezatik irten eta pilotara jolasten zuten. Abarketak ez apurtzeko, oinutsik egiten zuten pilotan. Bolalekua zegoen frontoian. Boletarako zaletasun handia; 9 txirlorekin jokatzen zuten. Teknika desberdinak: "esku-zulo"... Apustuak. Osintxun bolari gogorrak.

28. Bola-jokoaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-066/007
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Bola-jokoaren inguruko azalpenak. Gaiarekin zerikusia duen lexikoa. Herriko bolari onak. Apustuak nola egiten ziren. Osintxun bolari gogorrak; inguruko herrietara ere joaten ziren jokatzera.

29. Bola-jokoaren inguruko azalpenak; apustuak

- **Erref:** ANT-066/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Bola-jokoaren inguruko azalpenak. Gaiarekin zerikusia duen lexikoa. Apustuak nola egiten ziren: "lau baietz", esaterako.

30. Boletan egiteko erabiltzen ziren bolak

- **Erref:** ANT-066/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Bolalekuan erabiltzen ziren bolak. Handia eta txikia.

31. Umetan pilotarako zaletasuna; futbola ezagutu ere ez

- **Erref:** ANT-066/010
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Umetan pilotan egiten zuten gehienbat. Futbola zer zen ere ez zekiten. Donostiara joan zireneko kontuak. Aizkora jokoa Donostian.

32. Pilotarako zaletasuna Antzuolan; pilotari azpimarragarriak

- **Erref:** ANT-066/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Pilotarako zaletasun handia. Olaneko langileak lanetik irten eta frontoira joaten ziren. Pilotari onak zeuden Antzuolan, Bare eta anaiak, adibidez.

33. Herri-kirolak Antzuolan; probalekua

- **Erref:** ANT-066/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Herri-kiroletarako zaletasun handia izan du betidanik. Probalekua Ondarren. Herriko jaietan, inguruko herrietatik ere baserritar asko joaten ziren. San Isidro. Sokatira.

34. Herri-kirolak Antzuolan; probalariak

- **Erref:** ANT-066/013
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Probarria, 2.500 kg-koa. Beste toki batzuetan, 2.000 kg-koa izaten zen. Azkoititik ere probalariak etortzen ziren Antzuolara. Behin jaialdi batean gertatutakoa. Arrastoa.

35. Idi-probak Ondarren

- **Erref:** ANT-066/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

San Isidroetan Ondarra kalean idi-probak egiten zituzten. Lehenago baserri guztietan idiak egoten ziren; jornala basotik ateratzen zen. Idiak nola zaindu behar izaten ziren.

36. Gari-jotzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-066/016
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotzea harri-losetan nola egiten zuten; "txanketian".

37. Gariaren inguruko lanak

- **Erref:** ANT-066/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gariaren inguruko lanak: noiz ereiten zen.Gari-jotzea; gari-garbitzea...

38. Gariaren inguruko lanak; lexikoa

- **Erref:** ANT-066/019
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Gariaren inguruko lanak: noiz ereiten zen. Gari-jotzea; gari-garbitzea, etab. Gari artean hazten diren belarrak: oloa, "irukitza" (hirukoitza), etab. Gari-jorra. Baserriko tresnak. Baba beltza ereiten zuten gari artean. Gari-ebakitzea.

39. Gariaren inguruko lanak; auzolana

- **Erref:** ANT-066/020
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-ebakitzea ere auzolanean egiten zen. Baserri edo paraje batzuetan garia lehenago heltzen zen. Lanaren inguruko azalpen zehatzak. Azaoak egiteko erabiltzen ziren ziriak nolakoak izaten diren.

40. Gariaren inguruko lanak eta honen inguruko lexikoa

- **Erref:** ANT-066/021
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia metatu aurretik, eguraldiak itxura txarra bazuen, azaoak "mutxurtu" egiten ziren. Azalpen zehatzak.

41. Baserriko lanak; lurreta

- **Erref:** ANT-066/022
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:01:00. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lurreta nola egiten zuten. Lehenagoko bizimodua; lan gogorrak. Bideak; galtzadak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com